



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 63. INFORMAZIO BULETINA

> 2012ko Urtarrila



GIPUZKOA



### NABARMENDU BEHARREKOA

#### > Batasun Ekonomiko eta Monetarioaren egonkortasunari, koordinazioari eta gobernantzari buruzko hitzarmena

Urtarrilaren amaieran, Europako Kontseiluak Batasun Ekonomiko eta Monetarioan egonkortasun, koordinazio eta gobernantzaren hitzarmen berria onartzen duen ituna lortu du.

Kide diren estatu guztiek –Erresuma Batua eta Txekiar Errepublika salbuetsita– onartutako hitzarmenak Batasuneko zerga-diziplina indartzea du xede, horretarako, zigor automatiko berriak, zaintza handiagoa eta, bereziki, “aurrekontu-orekaren araua” sartuta, hau da, kide diren herrialdeek ordenamendu juridikoetan jaso beharreko zorra etetea xede duen xedapen espezifikoak sartuta. Hitzarmen berria 2012ko martxoan sinatu eta uztailean indarrean sartzea aurrez ikusita dago.

*Informazio gehiago:*

[http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms\\_data/docs/pressdata/en/ec/128035.pdf](http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/en/ec/128035.pdf)

#### > Gazteriarentzako Aukeren Ekimena

Batzordeak onartutako “Gazteriarentzako Aukeren Ekimen” berriak hauen alde lan egin dezaten eskatzen die kide diren estatuei: eskola uzte goiztiarra prebenitzearen alde, gazteei lan-merkatutarako gaitasun egokiak garatzen laguntzearen alde, lanpostuko lan-esperientzia eta trebakuntza bermatzearen alde eta gazteei kalitatezko lehen enplegua bilatzen laguntzearen alde.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0933:FIN:ES:PDF>



### KOMUNITATEKO POLITIKAK

#### > Europako Egonkortasun Mekanismo berria finkatzen duen hitzarmena onartu dute

Krisia monitorizatzen bideratutako Europako Egonkortasun Mekanismoa finkatzen duen Hitzarmena onartu da. Tresna horrekin, Europar Batasunak euroguneko konfiantza areagotzen eta elkartasun eta egonkortasun finantzarioa bermatzen laguntzea du xede.

Egoitza Luxenburgon du eta Europako Egonkortasun Mekanismoa euroguneko herrialdeei laguntzeko nazioarteko finantza-erakunde berri gisa sortu da, finantza-egonkortasuna babesteko ezinbestekoa denerako.

Ildo horretatik, hainbat tresna izango ditu eskura, hala nola kide diren herrialdeei maileguen emakida, kide diren herrialdeetako bonoen erosketa eta finantza-erakunde birkapitalizazioa finantzatzeko maileguen emakida. 2012ko uztailan funtzionamenduan hastea aurrez ikusita dago.

*Informazio gehiago:*

<http://www.european-council.europa.eu/media/582869/01-tesm2.es12.pdf>

#### > Adineko pertsonekin lotutako gaiekiko sentikorra izango den 2020 Europar Batasunaren aldeko adierazpena

Zahartze aktiboaren eta belaunaldien arteko elkartasunaren aldeko Europako urtea dela eta, Europan adineko pertsonen eskubideak eta interesak sustatzeko eta defendatzeko Europako plataformak adierazpena argitaratu du.

Adierazpenean adineko pertsonekin lotutako gaitan sentikorra izango den Europar Batasuna sortzeko eskatzen zaie Europako agintariei, gobernu nazionalari eta herritarrei, oro har.

Adinekoekin lotutako gaitan sentikorra den Europar Batasunak adin gehieneko biztanleen balioaren eta ekarpenaren aldeko aitortzearen eta jarrera positiboan laguntzen du, lan-merkatu inklusiboan, eremu zabalen prestaketan, irisgarriak eta egokitutakoak diren eraikinetan eta garraioetan eta ikaskuntza iraunkorrean eta belaunaldien artekoan.

*Informazio gehiago:*

[http://www.age-platform.eu/images/stories/23598\\_poster\\_everyone2012\\_v4.pdf](http://www.age-platform.eu/images/stories/23598_poster_everyone2012_v4.pdf)



### > Erasmus programak 25 urte beteko ditu

Europako unibertsitateen arteko ikasleen trukerako Erasmus programak hogeita bost urte beteko ditu aurten. Hori dela eta, Batzordeak hainbat ekitaldi eta programaren etorkizuneko helburuak, emaitzak eta erronkak hedatzeko hainbat jardunaldi antolatu ditu 2012rako.

Programa 1987an sortu zenetik, hiru milioi ikasle inguruk ikasketak edo praktikak egin ahal izan dituzte atzerrian. Erasmus programak etengabeko hazkundera izan du, bai ikasle kopuruari dagokionez, bai proposatutako jardueren kalitateari eta aniztasunari dagokionez.

Hain zuzen ere, 2007. urtetik, programak atzerriko enpresetan lanpostuak bultzatu ditu eta orain arte ia 150.000 ikaslek jaso dituzte xede horietarako diru-laguntzak.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/education/lifelong-learning-programme/doc80\\_en.htm](http://ec.europa.eu/education/lifelong-learning-programme/doc80_en.htm)



### KOHESIO-POLITIKA

#### > Egitura Funtsak gazteen enpleguaren eta ETE-en alde egingo du

Kide diren estatuek oraindik esleitu gabeko Egitura Funtsetako 82.000 milioi euro mobilizatzea adostu dute Europar Kontseiluan, Europako gazteei bideratutako trebakuntza-aukera eta laneko esperientzia berrien finantzaketa bultzatzeko. Kide diren estatuek ere egitura-funtsak birbanatzeko proposamenak onartu zituzten, enpresa txikiaren aldetik enpleguaren sorrera finantzatzen laguntzeko.

Erabaki berri horri jarraiki, Batzordeak gazteen langabezia-tasa altuena duten EBko zortzi herrialdeetako (Espainia, Grezia, Italia, Portugal, Eslovakia, Letonia, Lituania eta Irlanda) agintari nazionalekin eta lan-munduko ordezkariarekin jardungo du.

*Informazio gehiago:*

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=MEMO/12/49&format=HTML&aged=0&language=EN&guiLanguage=en>

#### > 2014-2020 aldirako Kohesio-Politikak Europako eskualdeetan inbertituko du

Panorama aldizkariaren –Europako eskualde-garapeneko eragileen hiruhileko aldizkaria– azken edizioak 2014-2020 aldirako 350.000 milioi euro baino gehiago kudeatzen dituen (EBko aurrekontu guztiaren herena) kohesio-politikarako proposatutako ikuspegi berriaren panoramika xehatua eskaintzen du.

Proposamenen deskribapen orokorra eta parte-hartzaile nagusien aipamenak eskaintzen ditu. Europako lurralde-lankidetzako proiektuetan, politikaren hiri-dimentsioan eta 2013ko RegioStars sarietako kategorietan oinarritutako hainbat artikulua barne. Horrez gain, Frantzia eta Suedia bezalako herrialdeetako kohesio-politikako eragile kudeatzaile parte-hartzaileekin elkarrizketak jasotzen ditu.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag40/mag40\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag40/mag40_es.pdf)



### e-LIBURUTEGIA

#### > *Golden Growth*: Europako eredu ekonomikoaren bikaintasuna lehengoratzea

Munduko Bankuak txosten berria argitaratu du titulu honekin: "Golden Growth: Restoring the lustre of the European economic model". Bertan, azken bi hamarkadetan Europan izandako bilakaera ekonomikoa aztertzen da, Europako eredu ekonomikoaren gakoak identifikatu ahal izateko xedearekin, datozen urteetan oparotasun ekonomikoaren jarraitasuna bermatzeko.

Xede horretarako, Munduko Bankuak Europako eredu ekonomikoaren sei hazkunde alor/osagai nagusietako bakoitza ebaluatu du: merkataritza, finantzak, enpresak, berrikuntza, enplegua eta gobernu-kudeaketa.

*Informazio gehiago:*

<http://web.worldbank.org/WBSITE/EXTERNAL/COUNTRIES/ECAEXT/0,,contentMDK:23069550~pagePK:146736~piPK:146830~theSitePK:258599,00.html>

#### > Kirolak Europan duen garrantziari buruzko txostena

Europako Parlamentuak kirolak Europan duen garrantziari buruzko txostena onartu berri du, duen funtzio soziala, ekonomikoa eta antolaketakoa bereizita eta lankidetzaz nazional eta nazioartekorako eta nortasun europarrerako alor gisa.

Etorkizuneko hainbat urterako finantza-testuinguruan kirol-politikarako aurrekontu espezifikoak eta asmo handikoa proposatzeko eskatzen dio dokumentuak Komisionari. Kide diren herrialdeei eskatzeaz gain, ikasketa- eta trebakuntza-planetan txertatzea bermatzeko ere eskatzen du.

Europa mailan, kirol-espirtuaren kontrako hainbat praktikaren aurka borrokatzeko beharra ere nabarmentzen du (dopina, trukajea eta indarkeria estadioetan) eta egun kirola garapen- eta identitate-politikako tresnatzat bultzatzen duten programak hedatzeko eskatzen dio Batzordeari.

*Informazio gehiago:*

<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+REPORT+A7-2011-0385+0+DOC+XML+V0//ES>





### ADIERAZLEAK

#### > 2013-2017 Europako programa estatistikoa

Europako Batzordeak 2013-2017 aldirako Europako Programa Estatistikoaren proposamena onartu du. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, bost urteko iraupena izango duen programak 300 milioi euro inguruko aurrekontua du eta, nahiz eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak oraindik ez duten behin betiko onartu (aurrez ikusitakoaren arabera 2012ko amaieran), Europako Sistema Estatistikoari bere erantzukizunetan aurrera egitea ahalbidetzen dio.

Europako programa estatistikoak hiru helburu nagusi finkatzen ditu 2013-2017 aldirako: a) goi mailako kalitateko estatistikak eskaintzea, EBko politiken formulazio, jarraipen eta ebaluazio hobea egiteko; b) metodo eraginkorragoak aplikatzea, estatistika europarrak lantze aldera eta c) Europako Sistema Estatistikoaren lidergoa finkatzea mundu guztiko estatistika ofizialen alorrean.

Programak EBko lehentasun zabalenetara egokituko diren lehentasunezko hainbat alor nabarmentzen ditu, besteak beste: 2020 Europa Estrategia, gobernantza ekonomikoaren indartzea, klima-aldaketa, hazkunde eta kohesio soziala, herritarren Europa eta mundu mailako bihurtzea.

*Informazio gehiago:*

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/11/1587&format=HTML&aged=0&language=E&guiLanguage=en>

#### > 2010eko Europar Batasuneko zerga-bilketa

Europako bulego estatistikoak –Eurostat– 2010eko Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako zerga-sarrerari buruz egindako argitalpena. Kide den herrialde bakoitzeko zergengatik sarrerari buruzko datu orokorrak eta horiek BPGd nazionalaren gainean duten garrantziari buruzko adierazleak biltzen ditu. Azken urteetan zerga-bilketari dagokionez izandako bilakaeraz gain, zerga motaren arabera xehetasunak erantsi dira.

Emitzei dagokienez, zerga-sarrerak herrialdeetako sarrera guztien % 91 dira. Europako BPGd-aren gaineko eragina % 39,6an eta % 40,2an dago eurogunean. Produkzioko eta inportazioetako zergetatik datorren bilketak 2010eko zerga-bilketaren % 33 adierazten du eta errentaren eta ondarearen gaineko zergak, berriz, % 31. Kotizazio sozialen pisuak behera egin du azken bi urteetan, zerga-sarrera guztien % 35ean kokatzeraino.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-SF-12-002/EN/KS-SF-12-002-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-12-002/EN/KS-SF-12-002-EN.PDF)



### > Europako Berrikuntza Panela (IUS), 2011

Kide diren 27 estatueta berrikuntza-emaitzen alderaketa-ebaluazioa eta ikerketa- eta berrikuntza-sistemei buruzko indargune eta ahuleziak eskaintzen dituen Europar Batasuneko Berrikuntzako adierazleen panelaren bigarren edizioa.

Panelak "Berrikuntzarako batasuna panela" ekimen enblematikoaren aplikazioa gainbegiratzen laguntzea du xede, Europa 2020 estratejiaren barruan, hautatutako 25 adierazleren bidez alderatutako ebaluazioa eskaintzeko.

Hautatutako adierazleetako emaitzetan oinarrituta, adierazleen taulak lau herrialde taldetan kokatzen ditu kide diren estatuak: liderrak (Danimarka, Finlandia, Alemania eta Suedia), aurreratuak (Austria, Belgika, Zipre, Estonia, Frantzia, Irlanda, Luxenburgo, Herbehereak, Eslovenia eta Erresuma Batua), neurritzkoak (Txekiar Errepublikak, Grezia, Hungaria, Italia, Malta, Polonia, Portugal, Eslovakia eta Espainia) eta apalak (Bulgaria, Letonia, Lituania eta Errumania).

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/enterprise/policies/innovation/facts-figures-analysis/innovation-scoreboard/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/enterprise/policies/innovation/facts-figures-analysis/innovation-scoreboard/index_en.htm)

### > 2010eko Europar Batasuneko txosten demografikoa

Europako demografiaren panoramika historikoa eta alderdi demografikoei buruzko joera nagusiak eskaintzen dituen Eurostaten txostena: hazkunde begetatiboa, biztanleriaren mugimendu naturalak, bizi-itxaropena, adinaren arabera biztanleriaren egitura eta familia-nukleo osaketa.

Bigarren zatian, enpleguaren edota trebakuntzaren bila, biztanleriaren Batasunaren barruko eta handik kanpoko beste herrialdeetara kanpo-zabaltzearen fenomeno aztertzen du txostenak eta hori biztanleriaren nazioarteko erlazio-eredu berriak sortzen ari da.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/research/bioeconomy/pdf/201202\\_innovating\\_sustainable\\_growth.pdf](http://ec.europa.eu/research/bioeconomy/pdf/201202_innovating_sustainable_growth.pdf)